

Zerbait mugitzen ari da

Joseba Kanpo Lasuen

Euskaldunon Egunkaria, 1991-04-23: 3.

Martin Ugalde, euskaltzale gartsu eta zintzoak, bota zuen punttua. Beraren mezua eta idazkera, ziur bere idazlumak Martinen bihotz-taupadak errepikatzen dituela, baikorra eta lizuna izateaz aparte erakargarria bilakatu zen hainbat eta hainbat abertzalerentzat. EGUNKARIAn agertutako artikuluan euskararen berreskurapenerako xede filosofiko sendoak erakutsi zitzaizkigun. Ez da ere txantxetako euskal munduarekin hartzen duen konpromisoa, hots, egunero sinesgaitza den miraria gauzatzen dutenen burukide bait da, EGUNKARIA alegia.

Eta bertso saio batetan genbiltzan legez, horra hor beste luma euskaltzale bat ere ausartu dela, puntuari jarraituz, ofizioaren posibilitate ugariak azaltzen eta garatzen. Txillardegik, bere seriotasun gordinarekin, iragana, oraingoa eta etorkizunean datorriguna aztertu izan du gainontzeko lora-berbarik erabili gabe.

Eta gauzak horrela doazela, ematen denean ezinbestekoa dugun tresna, batasuna, astiro-astiro argitzen ari dela, hutsune nabari bat, gero eta ozenago, sortzen zaigu agerian. Zulo beltz hori, benetako oskarbia oztopatzen duena, gero eta ikusgarriagoa da.

Doiela hemendik dei publiko bat EAJn dauden euskaltzale guztiei, ezagunak eta ezezagunak.

Euskararen berreskurapena ziurtatuko duen egitasmoak euron kemena behar du, hankamotz eta gelditzeko. Eta deialdiak nominatiboak ez badira askotan haizeak daramatzanez, izen bat jarriko diogu enplazamenduari. Hainbat urtetan, alor eta esparrutan lanean ibili den euskaltzale bati: Arratiko gizon leiala bezain fin eta zintzoa den Txomin Aurrekoetxeari, beraz eta barrez, zitazio publiko hau.

U.A. (Urgazizaleen Alkartasuna) euskararen aurkako estrategia guztietan dakusagu, PSOEek ez du ezberdin egiten ez eta egingo ere, ondo baino hobeto bait dakite euskara gure subiranotasunaren berma nagusia dena. Hau dela momentua dio Txillardegik, garaia dela dio Martinek. Zuk ere, Txomin, esan beharra daukazu esateko:

Sasoia da!